

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

**Foru Gobernu Kontseiluak 2019ko martxoaren 5eko ohiko bilkuran onartutako xedapenen laburpena**

– Erabakiak:

#### DIPUTATU NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluaren 152/2019 Erabakia, martxoaren 5ekoa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren zehapen araubidea arautzen duen maiatzaren 30eko 17/1993 Foru Arau proiektuari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 153/2019 Erabakia, martxoaren 5ekoa. Onespena ematea 2019ko maiatzaren 26an egingo diren hauteskundeak direla-eta hauteskunde kudeaketa arloan Estatuko Administrazio Orokorrekin lankidetzat hitzarmena izenpetzeari, hura berresteko foru arau proiektuari eta proiektu hori izapidetzeko Batzar Nagusietara bidaltzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 154/2019 Erabakia, martxoaren 5ekoa. Onespena ematea aldundi honen irizpenari, zeinak adierazten baitu Arabako Batzar Nagusiek Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtza arautzen duen ekainaren 30eko 19/1997 Foru Araua aldatzeko foru arau proposamena aintzat hartzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 155/2019 Erabakia, martxoaren 5ekoa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak Transferentzien Bitariko Batzordean duen ordezkaritza berritzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 156/2019 Erabakia, martxoaren 5ekoa. Onespena ematea Aldundi honen 1, 2, 3, 4, 5 eta 6 eraikinen zaintza eta segurtasun zerbitzua egiteko Gasteiz de Vigilancia SLU enpresari esleitutako kontratuaren likidazioari eta bermea itzultzeari.

#### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 157/2019 Erabakia, martxoaren 5ekoa. Onestea Eusko Jaurlaritzarekin izenpetu beharreko hitzarmena berresten duen foru arau proiektua, eta hura Batzar Nagusietara bidaltzea. Hitzarmenaren xedea da Laudioko ertzainetxea eta suhiltzaile etxea birgaitu eta eraberritzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren 158/2019 Erabakia, martxoaren 5ekoa. Onestea epeak luza daitezela Obra eta Zerbitzuen Foru Planari loturiko obrak amaitzeko eta agiriak aurkezteko, eta urtekoak berresleitu daitezela 2018-2019ko deialdian.

Foru Gobernu Kontseiluaren 159/2019 Erabakia, martxoaren 5ekoa. Onespena ematea auto-eskailera automatikoko ibilgailu bat eskuratzeko Rosenbauer Española SA enpresari esleitutako kontratuaren likidazioari eta bermea itzultzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 160/2019 Erabakia, martxoaren 5ekoa. Onespena ematea gizarte arloan lan sozietateak eta sozietate kooperatiboak sustatzeko eta eratzeko dirulaguntzen kudeaketan lagunduko duten erakundeen zerrendari (Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 21eko 68/2018 Foru Dekretuaren bidez egin zen deialdia).

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 161/2019 Erabakia, martxoaren 5ekoa. Onestea Zigoitiko Udalarekin hitzarmen bat izenpetzea, jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ikuskatzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 162/2019 Erabakia, martxoaren 5ekoa. Onespena ematea otsailaren 26ko 127/2019 Erabakia zuzentzeari, zeinaren bidez onetsi baitzen foru arau proiektu bat, ekainaren 24ko 13/2015 Legeak ezarritako helburuak betetzea ahalbidetuko duen aplikazio informatiko bat erabiltzeko Nafarroako Gobernuarekin egindako hitzarmena berrestekoa.

Foru Gobernu Kontseiluaren 163/2019 Erabakia, martxoaren 5ekoa. Onespena ematea prozedura ireki bidez kontratatzeari Aldundi honen, bere erakunde autonomoen eta horretarako hitzarmenak izenpetuko dituzten zuzenbide publikoko erakundeen zuzenbide publikoko diru sarrerak betearazte aldiak biltzeko kudeaketa lanei loturiko zerbitzuak.

Foru Gobernu Kontseiluaren 164/2019 Erabakia, martxoaren 5ekoa. Onestea Gestión Tributaria Territorial SAren aldeko esleipena, betearazte aldiak dirubilketaren kudeaketa lanak egiten lagunduko duen zerbitzuaren kontratua 2019an gauzatzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 165/2019 Erabakia, martxoaren 5ekoa. Onespena ematea aurrekontua aldatzeko hainbat espedienteri, auditorien urteko planari buruzko, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 166/2019 Erabakia, martxoaren 5ekoa. Onestea prozedura ireki bidezko kontratazio espedientea, zerga figurak eta iruzurra aztertzeko software tresnen irtenbide integratu bat eta iruzurrerako datuak analizatzeko prozedura bat eskuratu eta ezartzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 167/2019 Erabakia, martxoaren 5ekoa. Onestea, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailak eskatuta, 26/2019 kreditu transferentziaren espedientea, 1.150.091,47 eurokoa, "Lurralde oreka sustatzeko ekimenak" programako partidetarako, 2019rako dirulaguntzen deialdiak onesteko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 168/2019 Erabakia, martxoaren 5ekoa. Onestea kreditu transferentziako 30/2019 eta 31/2019 espedienteak, 12.826,00 euroko eta 53.130,13 euroko zenbatekoekin hurrenez hurren, "Zerga berezien programa eguneratzea. EMCS" partida sortu berria eta "Kanpoko lanak eta zerbitzuak, argitalpenak" partida funtsez hornitzeko, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 169/2019 Erabakia, martxoaren 5ekoa. Onestea gastuen zuzenketa teknikoaren 6/2019 espedientea eta konpromiso kreditua birbanatzeko 14/2019 espedientea, 1.933.450,- euroan eta 1.281.796,63 euroan hurrenez hurren, "2016-2017ko Obra eta Zerbitzuen Foru Plana: zuzkidura osagarria; aurretik konprometitutako kredituak" eta "Obra eta Zerbitzuen 2018-19 Foru Plana. Aurretik konprometitutako kredituak" partidei buruzkoak, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 170/2019 Erabakia, martxoaren 5ekoa. Onestea, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailak eskatuta, "Laudioko ertzain eta suhiltzaile etxea" partidarako aurrekontua aldatzeko zenbait espediente, aurrekontu esleipena egokitu dadin Eusko Jaurlaritzarekin izenpetu beharreko hitzarmenean jasotako obren finantzaketara.

## GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 171/2019 Erabakia, martxoaren 5ekoa. Onespena ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoko lanpostuen zerrenda aldatzeari.